

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko abenduaren 19tik 2021eko urtarrilaren 15era.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/12/28

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Lan hitzarmen kolektiboak.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 15ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den ile-apaindegi eta estetikako irakaskuntza zentroen, musika irakaskuntzako zentroen eta arte aplikatu eta lanbide artistikoen irakaskuntza-zentroen estatuko VII. hitzarmen kolektiboa. **2020-17097 xedapena - 32 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2021/01/04

- Ebazpena, 2020ko abenduaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den drogeria, belar-denda eta lurrindegietako txikizkako enpresen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko akordioa. **2021-90 xedapena - 2 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2021/01/14

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 4koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den unibertsitate pribatuetako, unibertsitate-zentro pribatuetako eta graduondokoentzako prestakuntza-zentroetako VIII. hitzarmen kolektibo nazionala aldatzeko erabakia. **2021-572 xedapena - 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/12/19

- **OGASUN MINISTERIOA. - Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 16koa, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko abenduaren 9ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia. Horren bidez, finantza-kontrol iraunkorra aplikatzeko araubide iragankorra aplikatzeko epea luzatzen da, kontrol modalitate bakar gisa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari dagokion kontribuziorik gabeko prestazioaren espedienteen eskubidea eta betebeharra aitortzeko. **2020-16518 xedapena - 2 or.**

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Berdintasun planak.** - Akats zuzenketa, honako Errege Dekretu honena: 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen, eta laneko hitzarmen eta erabaki kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. **2020-16520 xedapena - 1 or.**
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA.** - Zinema. - Akats zuzenketa, honako Errege Dekretu honena: 1090/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen den abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretua, zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatzen duena. **2020-16522 xedapena - 1 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.** - Gizarte Segurantza. - Ebazpena, 2020ko abenduaren 9koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, zeinaren bidez baimena ematen den zezenketa-profesionalen kotizazioen behin betiko arautzearen ondorioz eratorritako 2019ari dagozkion kuoten ordainketa atzeratzeko. **2020-16523 xedapena - 2 or.**

2020/12/22

- **OGASUN MINISTERIOA. - Zerga prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 15koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Zerga Kudeaketako Departamentuarena, telefono bidezko izapideak eta jarduketak gaitzen dituen, zenbait identifikazio sistemaren bidez. **2020-16674 xedapena - 3 or.**

2020/12/23

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**
 - **Premiazko neurriak.** - 35/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 22koa, sektore turistikoa, ostalaritza eta merkataritza babesteko premiazko neurriei, eta zerga alorrekoiei buruzkoak. **Disposición 2020-16823 - 30 págs.**
 - 37/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 22koa, zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko etxebizitzaren alorreko premiazko neurriei, eta garraioen alorrekoiei buruzkoak. **2020-16824 xedapena - 19 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. - Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 17koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila enpresa kaudimena eta sektore energetikoa babesteko premiazko neurriei eta zerga alorrekoiei buruzko azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **2020-16825 xedapena - 1 or.**

- **KANPO ARAZOETARAKO, EUROPAR BATASUNERAKO ETA KOOPERAZIORAKO MINISTERIOA. - Nazioarteko hitzarmenak.** - 2020ko azaroaren 15ean Parisen onetsi ziren I. eranskinaren (Debekatutako substantzia eta metodoen zerrenda) eta II. eranskinaren (Erabilera terapeutikorako baimenen Nazioarteko Estandarra) testu zuzenduak; Parisen, 2005eko azaroaren 18an egin zen kiroleko dopinaren aurkako Nazioarteko Biltzarrekoak. **2020-16826 xedapena - 28 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. -**
 - **Laneko arriskuak. Prebentzioa.** - 1154/2020 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretua aldatzen duena. **2020-16833 xedapena - 5 or.**
 - **Sendagaiak eta osasun produktuak. Indar Armatuak.** - 1155/2020 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, sendagaiak eta osasun produktuak bermatzeko eta zentzuz erabiltzeko irizpideak eta arauak Indar Armatuetako osasun zerbitzuei aplikatzea erabakitzen duena. **2020-16834 xedapena- 9 or.**
- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. - Kirol sozietate anonimoak.** - 1162/2020 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, kirol sozietate anonimoei buruzko uztailaren 16ko 1251/1999 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian araututako bermeen konpentsaziorako aplikazio araubidean baldintza bereziak ezartzen dituen, COVID-19aren eraginari aurre egiteko. **2020-16842 xedapena - 4 or.**

2020/12/25

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Nekazaritza ustiategiak.** - APA/1250/2020 Agindua, abenduaren 18koa, 2021. urteko erreferentziako errenta ezartzen duena. **2020-16967 xedapena - 1 or.**

2020/12/26

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Animalien osasuna.** - APA/1251/2020 Agindua, abenduaren 21ekoa, babes-neurri zehatzak ezartzen dituen mihi urdinari dagokionez. **2020-17013 xedapena - 11 or,**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Biztanleen udal-errola.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 15ekoa, Idazkariordetzarena, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Autonomia eta Toki Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren Presidentetzaren 2020ko abenduaren 2ko ebazpena argitaratzen duena. Horren bidez, 2020ko otsailaren

17koa aldatzen da, udal-errola kudeatzeari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkiena udalei. **2020-17014 xedapena - 3 or.**

2020/12/30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**

- **Hezkuntza.** - 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. **2020-17264 xedapena - 86 or.**
- **Tributuak.** - 10/2020 Legea, abenduaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legea, 2018ko maiatzaren 25eko Kontseiluaren 2018/822 (EB) Zuzentarauaren transposizioan. Horrek 2011/16/EB Zuzentaria aldatzen du, zerga-sistemaren esparruan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari dagokionez, informazioa komunikatu behar duten mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez. **2020-17265 - 6 or.**
- **Finantza-neurriak.** - 39/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 29koa, laguntza sozial eta ekonomikorako eta epaien betearazpena betetzeko finantza-neurriei buruzkoa. **2020-17267 xedapena - 7 or.**

- **OGASUN MINISTERIOA.**

- **Zergak.**
 - 1178/2020 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, sozietateen gaineko zergaren araudia aldatzen duena, uztailaren 10eko 634/2015 Errege Dekretuak onetsia. **2020-17268 xedapena - 6 or.**
 - HAC/1274/2020 Agindua, abenduaren 28koa, agindu hauek aldatzen dituen: EHA/3434/2007 Agindua, azaroaren 23koa, zeinaren bidez onesten baitira balio erantsiaren gaineko zergan erakunde taldeen erregimen bereziari dagozkion hileko autolikidazioaren 322 eredu, eredu indibiduala, eta hileko autolikidazioaren 353 eredu, eredu agregatua, eta datuak jakinarazteko 039 eredu; EHA/3786/2008 Agindua, abenduaren 29koa, balio erantsiaren zergari dagokion autolikidazioaren 303 eredu onesten duena; eta EHA/769/2010 Agindua, martxoaren 18koa, komunitate barruko eragiketen laburbilketaren aitortzearen 349 eredu onesten duena. **2020-17269 xedapena - 31 or.**

- HAC/1275/2020 Agindua, abenduaren 28koa, Ondare eskualdatzeen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kudeaketan aplikatzeko batez besteko salmenta prezioak onesten dituen. **2020-17270 xedapena - 1664 or.**
- HAC/1276/2020 Agindua, abenduaren 28koa, honako hauek aldatzen dituen: zenbait informazio-aitorpen; 2000ko azaroaren 20ko agindua, diru-sarrerren aitorpen-dokumentuaren 115 ereduak (eurotan eta pezetatan), *Hiri ondasun higiezinak errentan emateagatik lortutako etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpenaren* 180 ereduak (eurotan eta pezetatan) onesten dituen; EHA/3895/2004 Agindua, azaroaren 23koa, aktibo finantzarioekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitorpenaren 198 eredu onesten duena; EHA/3021/2007 Agindua, urriaren 11koa, jasotako dohaintzen, donazioen eta ekarpenen zein erabilitakoen informazio-aitorpena egiteko 182 eredu onesten duena; EHA/3481/2008 Agindua, abenduaren 1ekoa, balio, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio-aitorpena egiteko 189 eredu onesten duena; HAP/1608/2014 Agindua, irailaren 4koa, 187 eredu onesten duena, inbertsio kolektiboko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio edo partaidetzen informazio-aitorpenarena; eta HAP/1695/2016 Agindua, urriaren 25ekoa, 289 eredu onesten duena, elkarren laguntzaren eremuko finantza-kontuen urteko informazio-aitorpenarena. **2020-17271 xedapena - 12 or.**
- **Tasak.** - HAC/1277/2020 Agindua, abenduaren 28koa, jokoaren kudeaketa administratiboaren tasari buruzko 602 eredu, autolikidazioa, onesten duena, eta hori aurkezteko modua, epeak eta prozedurak zehazten dituen. **2020-17272 xedapena - 6 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/1278/2020 Agindua, abenduaren 29koa, uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengeni lotutako herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiak direla-eta. **2020-17273 xedapena - 2 or.**
- **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA. – Lanbide heziketa. Baliozkotzeak.** - 1085/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Espainiako hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako tituluen lanbide moduluen baliozkotzeak eta horiek aplikatzeko neurriak ezartzen dituen, eta Hezkuntza sistemako Lanbide

Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretua aldatzen duena. **2020-17274 xedapena - 162 or.**

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA. – Merkataritza ganberak.** - 1179/2020 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, atzerrian dauden Espainiako Merkataritza Ganberen errekonozimendu ofizialaren esparrua ezartzen duena. **2020-17275 xedapena - 9 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. – Energia elektrikoa.** - 1183/2020 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetarako sarbideari eta konexioari buruzkoa. **17278 xedapena - 39 or.**
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Estatistika Plan Nazionalea.** - 1110/2020 Errege Dekretua, abenduaren 15ekoa, 2021-2024 Estatistika Plan Nazionalea onesten duena. **2020-17283 xedapena - 184 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Gizarte Segurantza.** – Ebazpena, 2020ko abenduaren 21ekoa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Diru-bilketaren Araudi Orokorra aplikatu eta garatzeko arauak ezartzen dituen maiatzaren 25eko TAS/1562/2005 Aginduaren bigarren xedapen iragankorreko 2. paragrafoan aipatzen den kotizazioaren diru-sarrera geroratua amaitzea erabakitzen duena. **2020-17284 xedapena - 2 or.**

2020/12/31

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**
 - **Estatuko Aurrekontu Orokorrak.** - 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, 2021. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzkoa. **2020-17339 xedapena - 775 or.**
 - **Premiazko neurriak.** - 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko. **2020-17340 xedapena - 61 or.**
- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. - Antolamendua.** - 1177/2020 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Gobernuko Presidentetza berregituratzen duen urtarrilaren 7ko 136/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. **2020-17341 xedapena - 2 or.**

- **OGASUN MINISTERIOA. – Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga.** - HAC/1285/2020 Agindua, abenduaren 29koa, honako agindu hauek aldatzen dituena: HFP/1978/2016 Agindua, abenduaren 28koa, herrialdez herrialdeko informazio-aitorpena egiteko 231 eredua onesten duena; HAP/2194/2013 Agindua, azaroaren 22koa, tributuen arloko zenbait autolikidazio, informazio-aitorpen, zentsu-aitorpen, komunikazio eta itzultzeko eskaera aurkezteko prozedurak eta baldintza orokorrak arautzen dituena; eta EHA/3127/2009 Agindua, azaroaren 10ekoa, laneko etekinen eta jardura ekonomikoen, sarien eta zenbait ondare-irabaziren eta errenta-egozpenen gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena egiteko 190 eredua onesten duena. **2020-17342 xedapena - 6 or.**
- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Merkantzia arriskutsuak airez garraiatzea.** - Ebazpena, 2020ko abenduaren 10ekoa, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiarena, Merkantzia arriskutsuak airez seguru garraiatzeko Jarraibide Teknikoak (OACI 9284/AN/905 dokumentua) argitaratzen dituena (2021-2022 edizioa). **2020-17343 xedapena - 975 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Antolamendua.** - 1182/2020 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, honako errege dekretu hauek aldatzen dituena: 139/2020 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, ministerioetako sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duena; 689/2020 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Ogasun Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta Ministerio departamenduen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duena; eta 390/1998 Errege Dekretua, martxoaren 13koa, Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzen funtzioak eta egitura organikoa arautzen dituena. **2020-17345 xedapena - 18 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. – Sendagaiak.** - SND/1287/2020 Agindua, abenduaren 23koa, honako agindu honen akatsak zuzentzen dituena: SND/1121/2020 Agindua, azaroaren 27koa, 2020an Osasun Sistema Nazionaleko sendagaien erreferentziazko prezioen sistema eguneratzen duena. **2020-17347 xedapena - 2 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Jatorriko kontratazioak.** - ISM/1289/2020 Agindua, abenduaren 28koa, 2021erako jatorriko kontratazioen kudeaketa kolektiboa arautzen duena. **2020-17349 xedapena - 59 or.**

2021/01/01

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Ezohiko neurriak.** - PCM/1295/2020 Agindua, abenduaren 30ekoa, Ministroen Kontseiluaren 2020ko abenduaren 29ko Erabakia argitaratzen duena. Horren bidez, 2020ko abenduaren 22ko Erabakia luzatzen da, COVID-19aren hedatzea eta kutsatzea eragozteko ezohiko neurriak ezartzen dituen, Erresuma Batuen eta Espainiako aireportu eta portuetako hegaldi zuzenak eta bidaiarien ontziak mugatuta. **2021-1 xedapena - 2 or.**

2021/01/05

- **OGASUN MINISTERIOA.- Balio erantsiaren gaineko zerga. Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua.** – Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 4koa, Tributuen Zuzendaritza Nagusiarena, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuan kokatuta dauden enpresari edo profesionalei balio erantsiaren gaineko zerga itzultzeari buruzkoa. **2021-129 xedapena - 3 or.**

2021/01/06

- **OSASUN MINISTERIOA. – Sendagaiak.** – Ebazpena, 2020ko abenduaren 15ekoa, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren ekainaren 19ko Ebazpena aldatzen duena. Horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kudeaketan funtsezkotzat jotako sendagaien zerrenda ezarri da, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinaziorako premiazko neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuaren 19.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. **2021-150 xedapena - 4 or.**

2021/01/13

- **OGASUN MINISTERIOA. – Antolamendua.** - HAC/1324/2020 Agindua, urriaren 30ekoa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren egitura garatzen duen 1994ko ekainaren 2ko Agindua aldatzen duena. **2021-459 xedapena - 4 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. – Antolamendua.** - HAC/1324/2020 Agindua, urriaren 30ekoa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren egitura garatzen duen 1994ko ekainaren 2ko Agindua aldatzen duena. **2021-459 xedapena - 4 or.**

2021/01/14

- **OGASUN MINISTERIOA.**

- **Zerga prozedurak.** - HAC/5/2021 Agindua, urtarrilaren 13koa, zenbait zerga-aitorpen eta -autolikidazio aurkezteari dagokion helbideratze-epea luzatzen duena. **2021-518 xedapena - 2 or.**
- **Antolamendua.** - Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Zerga Administrazioako Espainiako Agentziaren Presidentetzarena, Zerga Administrazioako Espainiako Agentziaren lurralde-egitura eta -antolamendua ezartzen duena. **2021-519 xedapena - 22 or.**
- **Ordainketen antolamendua.** - PCM/7/2021 Agindua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen den PRE/1576/2002 Agindua, ekainaren 19koa, Estatuko Administrazio Orokorraren obligazioen ordainketarako prozedura arautzen duena. **2021-521 xedapena - 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/12/31

- **LEHENDAKARITZA.** - 48/2020 DEKRETUA, abenduaren 28koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena. **5600 xedapena - 2 or.**

2021/01/05

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 11/2020 FORU DEKRETU-ARAUUA, abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa. **12 xedapena - 20 or.**

2021/01/12

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - EBAZPENA, 2020ko abenduaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enpleguaren alorrean kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiak COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko aitortutako alarma-egoerak ekarritako baldintzetara egokitzeko aparteko neurrien aldaketak argitaratzen dituen. **93 xedapena - 7 or.**

- **LEHENDAKARITZA.** - 1/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. 111 xedapena - 6 or.

2021/01/14

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** - AGINDUA, 2021eko urtarrilaren 4koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko hegaztien ustategietan hegazi-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen baitira. 133 xedapena - 3 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2020/12/21

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 638/2020 Foru Agindua, abenduaren 11koa. Aldatzea abenduaren 17ko 651/2007 Foru Agindua, zeinaren bitartez onetsi baitzen 190 eredua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenei eta konturako diru sarreraren (lan etekinenak, jarduera ekonomikoenak, sarienak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena, eta horren diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinenak, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredua. 3903 xedapena - 2 or.

2020/12/28

- **FORU ARAUAK.** - 23/2020 Foru Araua, abenduaren 16koa, 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 1ekoa, baliozkotzeko dena, onespina emateko COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko zerga neurriak 2021erako. 4008 xedapena - 1 or.
- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - 675/2020 Foru Agindua, abenduaren 18koa, makina edo aparatu automatikoak ustiatuz jokoaren gaineko zergari eta hari dagokion errekaruari dagokien autolikidazioren 045 eredua aurkezteko eta ordaintzeko epeak aldatzen dituenak. 4042 xedapena - 2 or.
- **FORU AGINDUAK (NEKAZARITZA SAILA).** - 421/2020 Foru Agindua, abenduaren 17koa. Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko eta uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren bidez

onetsitako araudia aldatzea, zeina martxoaren 13ko 123/2019 Foru Aginduen bidez aldatu baitzen. **4002 xedapena - 4 or.**

2020/12/30

- **FORU ARAUAK.** - 24/2020 Foru Araua, abenduaren 23koa, Arabako Batzar Nagusietako 2021. urterako aurrekontuari buruzkoa. **4082 xedapena - 4 or.**

2020/01/04

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** –
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko 2020ko aurrekontuen luzapena 2021eko ekitaldian aplikatzeko irizpideei. **4089 xedapena - 5 or.**
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2020 Foru Dekretua, azaroaren 24koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Araua garatzen duen Erregelamendua, Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko ondasun eta eskubideak erregistroan inskribatzeari dagokionez. **4098 xedapena - 9 or.**

2021/01/11

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa. Onestea mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak foru egoitzetan aldi baterako egoteko zerbitzuaren erregulazioa, COVID-19 pandemiaren ondorioz titulartasun pribatuko egoitzak bideratutakoena, bai eta dagokion prezio publikoa ere. **15 xedapena - 3 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/12/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.**
 - Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2163/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 14koa, zeinaren bidez BATUZ proiektuaren betebeharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen baita. **833 xedapena - 3 or.**
 - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2170/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 15koa, irailaren 9ko 1482/2020 Foru Agindua aldatzen duena; Foru agindu horrek software berrmatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta

software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen ditu.
839 xedapena - 4 or.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 126 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, 2021eko lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen dituen. 843 xedapena - 3 or.

2020/12/24

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** - 8/2020 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Araua aldatzen duena. 861 xedapena - 2 or.

2020/12/28

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.**

- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2172/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 15koa, hiri-ondasun higiezinaren Merkatu-Balio Probablea eguneratzeko oinarri den merkatu-azterketa onesten duena. 809 xedapena - 1 or.
- 2197/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 17koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua aldatzen duena; horren bidez lanaren etekinen, jardura ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 190 eredua onesten da. Halaber, 181, 198, 189,159 eta 345 ereduak telematikoki aurkeztea ezartzen da. 855 xedapena - 3 or.
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2203/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 18koa. Honen bidez, abenduaren 15eko 2232/2017 Foru Agindua aldatzen da, zeinaren bidez arautzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen normatibo eta teknikoak. 857 xedapena - 43 or.
- Ogasun eta Finantza foru diputatuaren 2204/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 18koa. Honen bidez, honako foru arauak aldatzen dira: Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2310/2014 Foru Agindua, azaroaren 26koa; honen bidez 180 eredua onetsi da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) karga dela eta hiriko ondasun higiezinak errentatuta edo azpierreantatuta lortutako etekinei aplikatu beharreko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpen-aitorpena; Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 1487/2019 Foru Agindua, uztailaren 23koa.

Honen bidez, emariei, dohaintzei, zerbitzuen doako prestazioei, ekarpenei eta baliatzei buruzko aitorten informatiborako 182 eredia onartzen da; Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 48/2018 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa, inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioen eta partaidetzen eskuraketei eta besterentzei buruzko urteko aitorten informatiborako 187 eredia onesten duena eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2282/2016 Foru Agindua, abenduaren 23koa, finantza-aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortena egiteko 198 eredia onesten duena. **858 xedapena - 4 or.**

2020/12/30

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Lurralde Historikorako 2021erako 2020ko luzapeneko gastuen eta sarreraren aurrekontuaren proiektua. **856 xedapena - 1 or.**

2021/01/12

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 1/2021 Ebazpena, urtarrilaren 4koa, zeinaren bidez 2021. urterako Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak jakinarazten baitiren. **867 xedapena - 22 or.**

2021/01/15

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.**
 - 2020ko abenduaren 23ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, zeinen bidez abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19arekin lotutako luzapen-neurriei beste premiazko neurri batzuei buruzkoa, baliozkotzen dan. **11 xedapena - 1 or.**
- **ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA.**
 - Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren 320/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa. Honen bidez, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-inklusioaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lehentasunezko jardueren adierazpena, irabazteko asmorik gabeko erakundearen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 55/2019 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritakoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko. **7 xedapena - 6 or.**

- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren 321/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa. Honen bidez, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-inklusioaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lehentasunezko jardueren adierazpena, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 55/2019 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritakoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko. **8 xedapena -3 or.**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.**

- 1/2021 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, urtarrilaren 12koa, COVID-19aren ondorioz Balio Erantsiaren gaineko Zergan neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa. **16 xedapena - 7 or.**
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 73/2021 FORU AGINDUA, urtarrilaren 12koa. Honen bidez, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuko zeinu, indize eta moduluak onesten dira 2021. urterako. **18 xedapena - 35 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/12/22

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 487/2020, Foru Agindua, abenduaren 14koa, «jarduera ekonomikoetan izandako galerak konpentsatzeko kenkaria» pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eskatzeko CBK erdua onetsi eta hura aurkezteko era eta epea ezartzen dituen. **6856 xedapena - 4 or.**

2020/12/23

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 32/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, TicketBai betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duena. **6951 xedapena - 18 or.**

2020/12/24

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.**
 - 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen. **7008 xedapena - 49 or.**

- 523/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI obligazioa betetzearen ondorioz sortutako TicketBAI fitxategiak bidaltzeko gizarte lankidetzaren baldintzak onartzen dituen. 7007 xedapena – 7 or.

2020/12/28

• GASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.

- 12/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 22koa, 2021. urterako berandutze interesa, AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeko kanona eta zerga arloko eguneratze koefiziente batzuk zehazten dituen. 6996 xedapena – 4 or.
- 33/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak kalkulatzearren 2021ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten dituen. 6986 xedapena - 3 or.
- 34/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren arteko laguntzaren esparruan kontu horiei buruz informatzeko betebeharra ezartzen duen azaroaren 29ko 25/2016 Foru Dekretua aldatzen duen. 6988 xedapena – 2 or.

2020/12/30

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 499/2020 Foru Agindua, abenduaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 26ko 553/2017 Foru Agindua, «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredua onartu eta hura aurkezteko modu eta epeak ezartzen dituen. 6899 xedapena – 9 or.

2020/12/31

• OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. -

- 527/2020 Foru Agindua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den «Finantza- aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena» izeneko 198 eredua onartu eta haren aurkezpen moduak ezartzen dituen urtarrilaren 21eko 27/2018 Foru Agindua. 7067 xedapena – 11 or.

- 528/2020 Foru Agindua, abenduaren 28koa, 180 eredua eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituen abenduaren 23ko 677/2014 Foru Agindua eta 187 eredua eta haren aurkezpen moduak onartzen dituen abenduaren 29ko 556/2017 Foru Agindua aldatzen dituen. **7069 xedapena – 7 or.**
- 529/2020 Foru Agindua, abenduaren 29koa, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredua onesten duena. **7084 xedapena 5 or.**
- 530/2020 Foru Agindua, abenduaren 29koa, «Elkar laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz informatzeko erabili beharreko urteko aitorpena» izena duen 289 eredua onesten duena. **7083 xedapena – 14 or.**

2020/01/04

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.** - Aldatzea programa honen oinarri arautzaileak eta deialdia: COVID-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzekoa. **6829 xedapena – 2 or.**

2020/01/13

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**
 - 524/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, atzerrian eratutako entitate jakin batzuk errentak esleitzeko araubidean dauden entitatetzat jotzeko irizpidea onesten duena. **7015 xedapena – 3 or.**
 - 1/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztaperen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen. **56 xedapena – 76 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/12/21

- Kontseiluaren 2020/2169 (EB) Gomendioa, 2020ko abenduaren 17koa, 2020/912 (EB) Gomendioa aldatzen duena, EBra funtsezkoak ez diren bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeko aukerari buruzkoa. **169 xedapena - 3 or.**

2020/12/22

- KONTSEILUAREN 2020/2094 (EB) ERREGELAMENDUA, 2020ko abenduaren 14koa, COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldiari laguntzeko Europar Batasunaren Berreskuratze Tresna ezartzen duena. 2094 xedapena - 5 or.

2020/12/28

- Batzordearen 2020/2243 (EB) Gomendioa, 2020ko abenduaren 22koa, bidaien eta garraioen arloko ikuspegi koordinatua izateari buruzkoa, Erresuma Batuan atzemandako SARS-CoV-2aren aldaera berriari erantzuteko. 2243 xedapena - 5 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO